

# ZAR

178n. Zenbakia Bagilla  
1993

**BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ\***



**BIZKAIKO FORU ALDUNDIA  
KULTURA SAILA  
LAGUNTZAILLE**



## **ZALDIAK EUSKALDUNEN LAGUN:**

- ANTXIÑAKO LEIZETAN IRUDIAK**
- GAURKO LANDETAN POTOKAK**
- LEIAKETAK ZALDI-ZELAIETAN**

---

**EUSKERAZALEAK**

---

---

**EUSKERAZALEAK**

---

1993-94 IKASTURTEA  
OGEITASEIGARRENA

**BIZKAIEIAZ**

IRU MAILLA ETA ALKARRIZKETA

**EGUNAK:** ASTELEN, EGUASTEN ETA BARIKUETAN

**EDO ASTEARTE ETA EGUNETAN**

**ORDUAK:** GOIZ, ARRATSALDE ETA GABETAN

**ORDAÑA:** 14.000 pezeta.

**IZENA EMOTeko-TOKIA: EUSKERAZALEAK**

COLON DE LARREATEGI, 14-2

BILBAO.

URRUTIZKINA 423 53 22

26.º CURSO DE EUSKERA BIZKAIKO. 3 NIVELES Y CONVERSACION

**DIAS:** LUNES, MIERCOLES Y VIERNES

O MARTES Y JUEVES

**HORAS:** MAÑANA, TARDE Y NOCHE

**CURSO COMPLETO:** 14.000 pesetas

**INSCRIPCIONES:** EUSKERAZALEAK

COLON DE LARREATEGUI, 14-2 BILBAO.

TELEFONO 423 53 22

LAGUNTZAILEA

COLABORA



**BBK**  
**Bilbao Bizkaia Kutxa**

# LAN-URTE BARRIA

## URTE-MOTAK

Geienetan, urtea esaten dogunean, 365 edo 366 egun daukazan epea esan gura dogu. Eta epe ori urterillaren lenengo egunean asi eta abenduaren azkenengoan amaitzen da.

Egia esan, epea bera eta asiera ta amaiera ez dira beti orrelan izan: Erromatarren urtea martian asten zan eta, gaur be, beste errialde batzuk euren egunak daukez urtea asteko ta amaitzeko. Gaiñera urte ori eguzkiaren igiduratik artua da, baiña kondairan izan dira illargiaren goraberak oiñarri lez artuta eratu diran urteak. Orregeaitik aldatzen da pazko-eguna, illargiaren urteari jarraitzen dautsalako, antziñako judatarren oiturai jarraituz.

Ba-daukaguz beste urte-mota batzuk orain be: Liturji-urtea gabonak baiño lau igande lenago asten da. Ikasturtea iraillean edo urrillean asten da, lan-urteak udaldia amaituta irail-inguruan izaten dau bere asiera...

## AURTENGO LAN-URTEA

Opor-aldia geienez udan artzen dala, batez be ikasleak ori egiten dabe beti. Lan-urtea urril-inguruan asten dogu.

Guk, Euskarazaleak Alkartekook, irakaskintza be ba-daukagu eta beste ekintzak be lan-urtearen giroan asten doguz. Orretarako eginbide bat daukagu eta eginbide ori beteteko kontu-aurre bat eta ori argitzen dogunean. ekintzak asten doguz.

## IKASTURTEA

Euskerazaleak Alkarreak, asieratik, ekintza lez euskerea irakastea artu dau. Geienak euskera ez dakienak eta Bilbao'tarrak dira datozenak eta askok lortzen dabe gure izkuntza eskuratzea edo, obeto esateko, agoratzea. 26n. ikasturtea dogu aurtengoa.

Euskerea, Bizkai'ko euskerea, ikasi gura dozuen Bilbao'tarrai eta Bizkaitar guztiai dei egiten dautzuegu ba, gure ikastarora etorteko. ZER onen azalaren atzeko aldean ikusi daikezue orretarako bete bear dozuezan baldintzak.

Gu zain gagoz! Etorri ikasi gura dozuen guztiok!

## IPUIN-SARIKETA

Au dogu bigarren ekintza. Ainbat urte dira sariketa au egiten dogula.

Urtero etorten dira sariketara idazle on eta trebeak. Ipuin ederrak argitaratzen doguz gure ZER onetan. Ikusi zenbaki onen 16n. orrialdean sariketara sartzeko bete bear diran baldintzak.

## EGUTEGIA

Irugarren ekintza gure egutegia dogu: Irakurleai doan eskintzen dautsegu egunero orritxua emongo dautsen egutegia.

Aurtengoaren lana eginda dago eta irarkolako zuzenketak be egin dira.

## ARGITALPENAK

Igaz, Alkartearen 25n. urtea ospatu genduanean, zeatz eta meatz azaldu gendun gure argitalpenen barria. Baiña ori ez da antziñako lan bat, gaur be jarraitzen dogun lana baiño. Eta argitalpenen artean ZER aldizkari au eta liburuak daukaguz.

## BIZKAIERAREN EUSKAL-ASTEA

Urteroko ekintza da au eta aurten be egingo dogu. Igaz 25n. urtea ospatzeagaz batera egin zan, baiña aurten azillan eta Eskolapio'tarren lkastetxean izango da, ainbat urtetan izan dan lez.

Urrengo ZER'en agertuko dogu egitaraua.

## BATZARRAK

Alkarte guztiak lez, gureak be bere batzarrak egingo dauz, Zuzendaritza-Batzordearena, amabiostean bein, Batzar Nagusia urtean bein.

Batzar oneitarako batzarkideak billatzen doguz: Erakunde osoak arduratu bear dau Bizkai'ko euskerea zabaltzeko eta beroneri eusteko.

Guztiao egiten dautzuegu dei, batzar nagusietara etorteko eta Zuzendaritza-Batzordera sartzeko.

Orreik dira lan-urtearen barruan beteko doguzan ekintzak, batzar nagusian emongo dogu betetzearen barria.

## OLERTI-EGUNA (Larran´n, 1993-9-11)

### ASPALDIKOA

Urteak dira, urte asko, Larra'n eta Aita Santi Onaindia'ren ardurapean Olerti-Eguna ospatzen dala. Eta ez eguna ospatu bakarrik, olerkirik onenak OLERTI aldizkaria argitaratu be bai, azkenengo urteetan Eusko Ikaskuntzaren laguntzaz.

Ekintza txalogarri onen elburua olerkariak soretzea eta elerti-mota onetarako zaletasuna zabaltzea da, eta lortu be egiten dala uste dogu.

Urteen joanean egun au Kristo Errege'ren jaietan egiten izan da, antxiña urrillaren azkenengo igandean eta gero, jai-eguna aldatu zalako, azillaren aazkenengo igandean.

Igaz ez zan egin, Aita Santi bera gaisorik egoalako, eta aurten be antzeko zioagaitik aurreratu egin bear izan da. Iraillaren II'n egin dogu.

### AURTENGO OSPAKIZUNA

Eguna aldatu dalako edo larunbatez izan dalako, gitxi izan gara ospakizun onetara urreratu garanak.

Ni neu joan al izan naz, larunbatez izan dalako, guk igandeetan lan egiten dogu-ta, baiña bear ba'da, beste batzuk orrexegaitik ezin etorri izango ziran. Dana dala, ba-leiteke larunbatez egitea obatzat artu-bearra.

Saridun bi izan dira: Lirika-sailean Zubikarai'tar Augustin eta dramatika-sailean Aurre Apraiz'tar Barendin. Olerki biak dira ederrak. Aurre Apraiz' ek bizi-bizi agertzen dau guda-giroa, izan be arazo orretan sakon sartuta ibillia zan-eta. Augustin'en olerkiak ez dauko olan gai berezirik, baiña olerki ederto egiña, polita, trebebidez ondo omidua da.

Zoriona olerkari bai!

Eta urrengo urterako gertatu besteok!

### AURRERANTZEAN

Laguntzailleak izan dira, batez be epai-maian eta olakoetan, baiña lanik geiena Aita Santi'ren lepoan izan da. Aita Santi urteetan aurrera joan jaku eta osasuna be ez dau beti nai leuken bestean onaitzen. Gaiñera urteen joanean gomutapena be joan egiten da; orregaitik, egun au eratzea eta aldizkaria ateratea erakunde batek artu bear leuke bere gain. Orretarako egokienak, jakiña, karmel-darrak litzakez. Karmel aldizkariaren inguruan dabilzanak, eta bide orretatik arazoa bideratzea eziña ba'litz, beste erakunde batzuk Kardaberaz, Euskerazaintza, Euskerazaleak... ez leuke itzi bear ekintza eder au galtzen.

Olerti-eguna ta aldizkaria ez daitezela galdu!

OLAZAR'tar Martin'ek

B IZKAITARRAI BIZKAIERAZ



# INDURAIN, ARINLARI TREBEA

## (1993'ko "Giro" a)

Bizikleta-ariñeketa garaia gogoratzera goaz. Ez da arrisku bageko lana, baiña gizonak bere antzeko diranen trebetasuna ikusi nai dau aldatz gora, aldatz bera, lauetan ta mendi ta basoko muturretako zearkadetan. Ta gaztearen aidea arrano antzera ikusirik poztu egiten da eder-zalea. Baiña gogozaletasun onek, norbere inguruko mutilla danean, biotzari kili-kili, eragiten deutso.

Oraingoan ba-da, euskal abizendun gizon gazte bat, izar antzera argi egiten dabillena biderik bide bere arintasunagaz ta ereduaz. Arin-arinalari lez ala gizontasunez... zertan ete da jakintsuago ta trebeago...? Bera jaio dan lurraldetik, arbasoen jatorriko abizen eder bat artu dau... Indurain. Biderik bide, gora ta bera beregan daroazela dirudi arkaitzen gogortasuna, zelaien zabaltasuna, kristautasunaren egia ta itzaropena ta euskaldunaren jatorrasuna.

Gorengo maillaara eldu zan Indurain euskal abotsa, izen ederra, mundu guztian zabaldurik, persona asko poztu dituen. Baiña Indurainak erriari emen deutson poza ez da izan aizearen antzera iges doan mamua. Itoliko ibillaldian, egunetik egunera, esan eta egin ziran jokabideetatik agertuko da gizon onen nortasuna. Lenengo ta bein, asikerako ibillaldia egin ondoren, era ontan agertzen da euzko txirindularia.


"Asikerea lengo urtean lez egin dot. Txirindulari bulartsuenei segundu batzuk ateratea lortu dot ta onek adorea emoten daust". Au zan asiera, au da txirindulari baten gizontasuna... Gazte zentzundun batek ez ditu beste aundiak bera bota bear, al dala norberak gogor egin baiño, ta norbere bizikletea, oroz goitik, jarri. Au da jakintsuen garaitzazko jokabidea.

Bigarren eguna zan ta lenengo iruren artean asiera emon eutson eguneroko ensaio baten antzera, baiña, laster, Kastelfrankoko goitik berera eldu ziranean, arrano baten antzera jatsi zan bestek arrituta begira zitularik. Neure arin erara jokatu

neban iñoan, ta aldatz barrenean bi bakarrik aurkitu giñan. Baiña aurrerari onak zirenak, ez egozen lotan, ta Migelek bere kontuak atera bear zituan, eguneko ekiñaldi aren amaieran segundu batzuk ba-ziran be, aurrera aterateko.

Etsai gogorrek eukazan inguruan: Argentin, Chiappucci, Bugno ta euren artean Chiappucci tranposo baten antzera bereak egiten ibili zan. Baiña bere gurariak ezin lortu izan zituan, beste lagunen indar biziak, ain gogor, ikusirik. Egun onetan Migelek izan eban lagun on bat bere inguruan, al eban guztia lagundu eutson bere anai Prudentziok zurtasun guztiagaz.

Migelen barruak iñoren aurkako kezkarik ez



## KIROLAK

dauka. Berak bere gogo indar ta gorputz aldiari begiratu ta noz, nun ta zelan jokatu leiken begiratzten dautso. Lenengo egunak igaro ondoren ta ibillaldia zelan doan ikusirik, erabagia artuta dauka. Karreren aurrealdian puntu on bat jagon ta azkenengo astean al dan guztia emon "Giro" ibillaldia irabazi al izateko.

Gogo txarrak ta min gaiztoak barri ustel txarrak zabaltzen ditue aurrelari aundi onen aurka, urraturren batzuk izan dituala-ta... Zarata onek ez dira mesedegarriak, baiña Migelen balioak, laster, ixildu-eraziko ditu esames guztiak. Bakarreko ibillaldian ta azkenengo astean uste dau bere indar ta almen guztiak agertzea. Guzti ori egingo dau, beti legez gizontsu.

Ekaiñaren seia egun gogorra ta goragarria izanogo eban Indurainek. Aldatz-gora bere asmakizuneko diabrukeri maltzurrenak egingo zituan, etapa a irabaziaz, baiña Migelek Maglia Rosa, bigarrenez, jastea lortu eban. Bigarrenez jantzi ta azkenengo eguneraiño, garailari, eroango eban azken garaitza lortu artean. Bere aurkako lagunak gogorrenak atzeko aldean itziko zituan, arnasa nasaiago artzeko eran.

Egunerik egunera irabazten doala dirudi. Adimena zur, belarriak bizkor ta begiak zorrotz; ondo zaintzen ditu bere inguruko nausi-nausiak, ta Milandik geroago ta urrago aurkitzen da Sestrierera begira. Egun artako erloju-aurkako ekiñaldian gauzak geiago argitzeko ustea dauka. Baiña Ugrumov Letondarrak, berak irabaziko ete eban ustea agertu eban, Indurainemperatuagaz. "Giro" ibillaldi guztia aurrera doa, 49 segunduren aldiagaz dago. Indurainek bakarreko ekiñaldietan danak menperatzen ditu, baiña mendi gaiñekoan, iñoz, be ez".

Rochek ostera, onela iñoan. "Indurainen aurka egitea eziña da, bere aurka egiteak, ez dau ezertarako balio. Alan da guzti be ausarkari bat egin eban beste lagun birekin batean, egiñalak egin, minutu batzuk aureratu, ta geiago eziñean diño: "Indurainen aurka egitea alperrikoa da".

Chioccuiku zan beste bat, zerbait egiteko erea galdu ebana... "Nik nai neukena etaparen bat edo irabaztea da gaiñerakoak alperrikoak dira..." Chiocciolik, argi, ikusten dau. "Indurainek ondo agertu dau, egoera on baten aurkitzen dala. Menperatu eziña da".

Indurain: "Asko nekatu naz, baiña ez dana galtezko bestean".

Azkenengo urte bi ontako lau ibillaldi nagusietan indar negurtuekin eldu zan atzo el-mugara. Ugrumovek egindako iru atakeekin, indarrak urtu egin jakozan. Baiña Italiko arin-aringako bigarren urteko nagusitasuna zaindu eban. Eta, nai estualdiak menperatu, nai garaitza aintzatsuak lortu, bere euskal izenaren duintasuna, gizontasunez eta fedez ondo argiturik itziko zituan bai bideetan ta bai jende aurrean bere garaitz ikurak artukeran.

Ugrumov: "Al dodana egiten alegindu naz".

Mutil onek be ba-dau Indurainen antzeko apaltasun irudi eder bat. Egiz, mundura datorren giza-semea gizaldia serbitzera dator ta ez arrokeriz ingurukoekin aserretzera. "Niretzat, diño, Indurainen ondoren bigarren izatea, garaitza aundi bat da. Lenengo ta bein, podium edo olgain baten puntan agertzea, ez dot iñoz lortu izan. Karrera edo lasterketa au izan da niretzat garaitzarik onena. Ta bigarren, Migel Indurain izan dalako irabaziea". Ona emen, Ugrumov'ek daukan poza Indurainen ondoren irabazle izateagaz.

Chiappucci: "Italiarren artean lenen izatea, gauza aundia da".

Gizon gazte onek "Giro" a irabazteko amets osoaz urten eban aurten karrera edo lasterketara, berak diñoanez, "baiña ezin izan dot". Bere berben bidez barruan eukan aurtengo etsipena be agertzen eban. Nai ta ezin; aurrean, obeagoa eukan-da. "Giro" a beran berariz, berak irabazteko eran jarri eutsen, ta ezin irabazi. Orduan, zerbait bere eziña edertzeko diño: "Oraingo onetan Migel Indurain da indartsuena, ta orixe baieztutea baiño ez dau egin. Berari irabazterik, iñoz ez dot lortu, ta orrez gaiñera erlojupeko ekiñaldietan ez naz indartsu aurkitu".

Garaitzetan agertzen da Indurainen giza-sena... munduko garaitza onek direla-ta, euskal odolak ez dautso zorakeriz irakiten; bere giza-sena, beti gizatsu agertuko da jendearen aurrean. Garaitza nagusi bat, bi, iru ta lauk ez dautsoe biotz barrena arinkeriz dardaratuko. Jokabide ederra, gizonentzat atsegiña ta zure euskal abizen ederrarentzat txalogarria.

PAULIN

# FRANZIZKO IRAZOLA

## ELORRIO

Bizkai guztian erri ederra  
Elorrio da, benetan,  
arri landuzko etxe jatorrak  
armarriak etxeurretan.  
Izen aundiko gizon prestuak  
sortu ditu belaunetan,  
giza-gidari gartsu diranak  
erri naiz eleiz bidetan.

## ARGIAREN INDARRA

Nork zeazki azaldu Elorrio'k elizari eta gizadiari  
emon dautsozan gizaseme ospetsuen izenak? Idaz-lan  
ontan bere seme bikaiñ baten izena goratu nai dot.

Nor da Franzizko Irazola? Mixiolari gartsu ta lan-  
zalea, gotzaiñ yaioa, Franzizkotar leiala, gizon burutsu  
ta argia, mixio lurraldeetan bide-egille azkarra, jainko-  
zale ta eliz-zale adoretua.

Aita Irazola'k Elorrio'n ikusi eban lenengoz lurral-  
de eder onetako argia (1869, iraillak 23). Eta luzaro  
barik, beste zeruko argi dizdiratsu bat sartu zan bere  
biotz bigun eta garbian: Franzizkotarra izateko Jauna-  
ren grazia. Eta mendiarte gerizpetsu areik itzirik  
Peru'ra etorriko da amalau urteko mutikoa dalarik.

Zelan garaitu sasoi ontan erri-miña eta etxe-miña?  
Zelan bere buruaz jabetu ikaste gogorak egin eta prai-  
lle bizitza zorrotza bizitzeko? Giza-semeentzat eziñ-  
alakoa dirudi. Baña Jaunaren graziaren indarrarentzat  
ez dago eziñik. Ekiñ eta jarrai eleiz ikasteak amaiturik  
meza Barria emoteko egun zoragarria argitu jakon  
(1895, jorraillak 28).

## BIOTZ AUNDIKOA

Gure artean esan oi dogu: "Esana da erraz, eta egiña  
garratz". Esate utsak uskeria baño besterik ez dakar. Ez  
dau merezi erriaren artze onik. Gure aita Irazola, oste-  
ra, oso eginkorra eta emonkorra izango jaku bere bizi-  
tzako egun guztietan. Beretzat egiña ez da garratza  
izango biotz zabal eta aundikoa dalako.

Au dala ta Franzizkotarren artean praillegaien zu-  
zendari eta etxeko Nagusi izango da. Bat-batera mixio  
lanari gogo berroz ekingo dautso.

Egia da izan be: "Bakoitzak dau berezkoa". Aita  
Irazola'k argi ta garbi darakus bere ganora ta gaitasuna  
eleiz arazoetan. ori ikusirik, zer? Ukayali'ko Eliz-Pre-  
fecto izango da lenengo, eta geroko baten bertako Go-  
tzaiña.

Gizaldiaren alde zintzo jokatzeta mundu ontako  
bete-bearrik goragarriena dozu, batez be emengo bear-  
tsuen artean. Zelako aurrerapen ekintzak beteko ditu  
gure Euskal seme eraginkorrak?

Ara: Amazonas baso marduletan ezin esan alako  
ibillaldiak eta esplorazioak egingo ditu. Bertako leku  
rik egokienetan mixiolari taldeak ipiñi, batez be monja  
maratz eta arduratsuak. Onako aurrerapen bideak lu-  
rrean eta biotzetan zabaltzen diardu eten barik.

Aita Rafael Gaztelu'gaz batera, au bai arrigarria!,  
Concepcion erritik Satipo'raño, eta emendik Puerto  
Okopa, Oventeni eta Atalaya'ra, auto-bidea zabalduko  
dabe. Aita Irazola bera izan zan bidegintza onen mai-  
xua. Geroko baten Peru'ko Jaurlaritzak emon eutsen  
bearezko zan dirua ta laguntza.

Bide eder onen inguruetan badira lur yori eta lur-  
giro ekartsuak. Bat-batean sortuko dira auzoak eta  
erriak.

Mixio lurraldeetan ez dira falta antxiñako ainbeste  
gauza oroigarriak, au da, illerri eta illobietako oroiga-  
lluak, euren siniskeriaren irudiak eta zerak, esku-lanak,  
eiza eta arrantza-tresnak. Aita Irazola arduratsu ibilliko  
da onako oroigailuak batuten eta eurekin Erakusketa  
ikusgarri bat eratuko dau. Geroago Erakusketa ori  
Erroma'ra eroango dabe, ango eskabidez.

Gaztediaren aziera osobegikoa jako gure aita Fran-  
zizko'ri eta Okopa'tik gertu Ikastetxe eder, zabal bat  
egingo dau. Bere erraietatik sortuko dira Kristau zin-  
tzoak, eliz gizonak eta ango errietan buruzagi izango  
diranak.

Bere ibillaldi eta esplorazioai buruz egunari interes-  
garriak idatzi zituan, eta Peru'ko aldizkarietan argitara-  
tuak izan ziran.

Bere bizitza eder, argi ta dizdiratsua goxo-goxo  
amatau zan irurogeta amasei urte zituala (1945, uztai-  
llak 12).

Jaunak emon dagiola betiko argiaren zoriona Elo-  
rrio'ko seme jator eta bikaiñari.

URIGUEN'TAR ZENON

---

## KIWI LANDARE OSASUNTUA

---

Kiwi izentaturiko ortuari au gaur egun jakitunen iritxiz barazkirik oberenetarikoa dogu egiz. Txina lurraldeetatik ekarritakoa ain zuzen. Urteak dira luditik zear erabilli oi dana. Orain berrogei urte inguru Txina'tik at "Nueva Zelanda"n landaratu oi da ta irabazpide ugarriakaz ziurrik asko. Ainbat urte dirala España'ko laterrira be eldu jakun. Asiera baten Galizi lurraldeetara; ta galiziatarrak ortuari onein salerosketetan oituta ez dagozenenz euren salerosketen artu-emonak balenziatarrai eskeñi eutseezan. Ori bai, ta arritzeko ez danez, eurai salgai bezala eskeñiz ta irabaziak zelanbaiten euren artean erdibiturik.

Bai-dira alan da be amarren bat urte gure Euzkadi maitera igali baliotsu oneik eldu zira-la. Kiwi-landarak toki egokitsuak ebezan etxaldi ingurumarietan landatu ziran, tat orrez gain bertantxe salerosleen arteko ikertze egokitsu ta aldizkoak egin bere bai. Nolanbaiteko ziurtasuna bear zana zer onein obariak alik ariñen egiztatzeko. Kiwi arnariak asi dira euren uztak eta irabazpide onuratsuak emoten. Beraz igali au garezta da, ta oraindik beñipein zio bigaitik. Lenen eta bein bere landara ez ei da merkea. Gañera lur aukeratuak bear izango ditu: Lenengoz ezetasun edo lur-bustitze bereziak jatorriz; errez gaiñ noizbeinkako urezkari edo erregadioak, eta azkenez euren lurak bustintz edo "arzilletan" eundik 18'ko bat (%18) edo or nunbait euki bearko dabe, ta ur-geldiak bertan kokatu ez daitezcan arin-samarrak deiturikoak izan bearko, alegia. Ori ta guzti lur-gertakerea ta zimaurre botatzea arruntak edo besteen lakotxeak ei dira; ta eguraldiari buruz lañotsua onena, bera jaio ta indar barritu daiten. Baldintz oneik bai-dira izan be garrantzitsuenak Kiwi landareak edozelango lurraldeetan gaiñ-gaiñezka jaso daitezcan.

Bizkaialdean, Gernika'n batik-bat amar

milla landare ei dagoz ta lur-goibe ta zabaleran ogei Ektaretan kokatu oi dira. Ez da ezelan be aso, agiriak dagerkigunez, baiña zerenbategatik asi bearra dotu. Euren arteko gune naiz birtarte; ots, landara batetik beste-arenekoa ain zuzen, bost neurkin-laukokoa ei da egokitsuen. Kiwi oneik landartzeko kurutz itxurazko abe edo egur tantaitxo batzuk ezarri oi dira ta adarrak abeai burdin-ariz lotzen jakez. Dauken goiberea 1,80 neurkin edo metrokoa da; ta origaitik euren erabilkerea bene-benetan oso erreza.

Kiwi landareari buruzko garestitasunaren bigarren zio zergaitiariburuz mintzatzeri noatzue. Asiera baten eralketak aundi samarrak dira, irabazpideak ala ta be ez dira atzean geldituko sal-erosketean **atzerririko bideak** agerpide barriakaz ondo gertaturikoak baidira. Bide urrantze ortan Europa'ko azoketan sartzeak lagunduko dauskuelakoan gagoz.

Eralgiak Ektarea baten karuak dira egitan; ortik-andik bi milloi pezeta baiño geiagoraiño igon daitekez. Ortarako kontuan artzekoak, beste lur-gertaketak ta eskuz nai tresna-bidez bear dabezan bustialdiak ta guzti, ala ere.

Landare bakoitxak zazpi-zortzireun laurleko edo pezeta balio ei dau; kilo bakoitzean 12-13 igali bakarrik sartu oi dira; (ez dauskue esan landare batetatik zeinbat igali urtetan diran). Ori ta be ziur dakiguna da igali naiz arnari bakoitxaren balioa asiera baten 75 pezetatik 100 pezetarako bidean egozala, baña, gaur-egun, igartzen zan lez erdira ta geiago be beeratu ei dira; alan da guztiz be irabazpen naiko polita ataratzen dabela sal-neurri orretan entzun dogu. Emen bere, saltokiak ezeze igali bakoitxaren neurriak begiztatzekoak ei dira.

Aztertze ta ikertzaileen aburuz iruren bat urte bear dira uzta edo onura egokiak jadesteko, ta sei urte or-nunbait irabazpideak obere-



nak izan ata goi-mailletaraiño igon daitezan. Kiwi edo zugaitz-ondo txiki onein bizitza geien baten 35 urtekoa ei da jakitunen iritziz.

Txina lurraldeetara barrero biurtuz, an jatorriz lau muetako kiwi zugaitz-ondoak aurkitu geinkez. Euretariako onena neozelandarrrak egin dabezan azterketai jarraituz "Hayward" izentaturikoa dogu. Kiwi zugaitz mueta onen iraupena; ots, edozein lekutan gorde naiz **erbesteratzeko** baldintz onenetan eta aldi luzengetan zaintzeko, egiazki, onuratsuen ta egokiena ei da "Hayward" deituriko au; beste guztien gaiñetik ei dago.

Kiwi igaliak Azillan artu bearrezkoak dira, neguko leiak gogor jo ez dagizan. Alan da guztiz udabarriko lei ta izotzak kaltegarrienak jakoz. Errazoi orregaitik landaratzea orrillan, loraillan egin oi da.

Itxuraz, arnari onek, ez ezaguna danez, zer bakana edo arritzeko lakotxea lenengoko begirakadean emoten dau: Uledun eta gaztaiña margozkoa azaletik ei da. Barnetik ostera aragi-mamiña orlegizkoa ta biiak edo garauak baltzarenak diranez, jatunak eta tripazaiak erakartzen dabez, eta jatetxeetan naiko erabilliak ei dira.

Aomen edo au-kutsua orrez gain biguna ezezik gozokitsua da. Alikaturafi buruz goimailla baten sailkatu geinke. "C" bitamiñetan, limoiak baiño sei bider geiago dauka.

"Proteiñak" eta mea (miñeral) gaiñiak bere ugari.

Erabilkerak era askotarikoak atan be. Ots, igali bezala, gozokien erabilkeran, yoguretan; janari laguntzaille bezelakoetan eta saltsetan ere bai, gitxienez.

Zio onekaitik Euzkadi'n nekazariak ez da denpora asko Derion batu zirala, Aldundiak ortarako gertaturik daukan bas-etxaldean edo granjan.

Batzar onen gai berezia ta garrantzitsuena, Kiwi zugaitz-ondo onek eta bere igaleak batez bere, **"Europa erdi alderantz erbesteratzeko"** lekarkezan onurak begiztatzea izan da.

**Arregi'tar Josuk  
(1984'garren urtean idatzi nebanetik,  
zerbaiten barrizkauta)**



#### **IRAKURLEAI OARRA**

ZER aldizkariak eta EUSKERAZALEAK ALKARTEA'k ba-dauke Bilbao inguruan urteko arpidetza eskuratzeko erea. Etixerik etxe joaten da kobratzaillea. Baiña gauzea ez da ain erreza errietan. Orregaitik eskari au egiten dautzuegu: Bialdu eiguzue txartel edo txeke bat. EUSKERAZALEAK ALKARTEAren izena ipiñi ta 1.500 pezeta dirala idatzita. Txartel ori sartu karta-azal baten eta gaiñean zuzenbidea ipiñi: EUSKERAZALEAK ALKARTEA.

Colon de Larreategi, 14, 2.º, eskoia. 48001 BILBAO.

## ARALAR'era begira (Inozentzio abadeari)

1993'ko iraillaren 2'gna.

Ayerbe'tar Inozentzio apezari.  
Agur euskaltzale ederretsi ori!

Artu dogu gure etxean zuk idatzitako "Apezak sakristiara".  
Zure liburu au Aralar'en zuk niri emondakoa da, orain laupabost urte.  
Esanbearrean nauzu oso atsegiña izan dodala. Gaiak, euskera goxo ta errikoiagaitik...  
Tamala da, benetan, au bezelako beste lan batzuk idazten jarraitu ez izatea, zeu Tako idazle jatorrak bear ditugu-ta.  
Nire azkenengo iru liburuak bialtzen dizkizut, atsegin izan dakizuzala itxaronez.  
Ekin eta aurrera euskeraren onerako.  
Biotzez agurtzen zaitut.

ZUBIRI'tar Iñaki  
EUSKERAZALEAK ALKARTEAREN  
Lendakariak

### ARALAR-IZADIAN

Euskalerrria ederra da beronen mendi, baso, ibai, itxaso ta errietan, baiña edertasun ori urretik ikusi nai dauanak, ondo egingo dau Aralar mendira igotea.

Gure mendi-gaiñerik geienetan daukaguz ikuspegi oso ederrak, baiña ederrenetariko dogu Aralar-gaiñekoa.

### ARALAR-KONDAIRAN

Aralar Naparroa'ko Erreiñuaren barruan go-

goangarria izan da eta Bakalerrri onetako bakaldun edo errekeak maitasunez begiratzen eutsoen toki oneri, Santutegi gurgarri lez.

Eleizearen barruan aurkitzen da, zaletasun au ziurtatzeko, iruditegi ederra. Urte batzuk dirala lapurrak eroan eben baiña geiena barriro eskuratu al izan da eta antxe dago.

Baiña ez da kondaira utsa. Lenagoko zer-bait gogoratzen dausku Aralar'ek. Mendi atse-gingarri onek ba-dau zer-ikusia Euskalerrriaren zaindari dan Mikel Goiaingeruagaz eta Gabonetako ospakizun euskaldunetan gure erri-girora sartzan dan Olentzero'gaz. Jakingarriak eta ederrak dira gure arbasoakandik datorkigu-

zan edesti  
oneik.

### **INOZENTZIO ARARLAR'en**

Santutegi onetan egiten dau bere abade-lana aspaldiko urteetan Inozentzio abade euskaldunak.


Sarritan ikusi dogu abade au Kardaberaz'tarren batzarretan eta Euskera-zaintzaren giroan. Euskaldun barria dala diñosku, gaur aurkezten dogun liburu onetan, baiña bera beti euskeraz ondo egiten ikusi dogu.

Ara joaten garanean, sarritan, maitekiro artzen gaitu.

Bere gurari bizia euskerea Naparroan zaintzea da. Oraintsu ibilladi baten izan gara Garbizu deritxon Aralar-barreneko errian eta asko pozu giñan edatetxean edaria eskintzen egoan andreari euskeraz egiten entzun geuntsanean.

### **LIBURUA**

Zubiri'tar Iñaki'k eskuratu dausku APEZAK SAKRISTIARA deritxon Inozentzio jaunaren liburua, 1985'eane idatzia.



Abadearen bizitza giro ez-bardiñetan agertzen dau. Eta azkenean iztegitxu bat dakar, ulergaitzak litzakezan itzak argitzeko.

Beste nappar baten liburua, Larrainzar' ena, irakurri dogu oraintsu, baiña zelako aldea bion artean, mundu ezbardin bi dira. Azkenengo au, gaiñera erderaz dago eta orain ogei ta amar bat urte izan zan giroaren ikuspegi bat agertzen dau.

Zorionak idazleari eta jarraitu dagiala idazten.

**OLAZAR'tar Martin'ek.**

\* \* \*

---

**GALINDEZ**

---

Agur, Josu Galindez!  
Odol oiartzunetan  
arrituta nago:  
nik ez nekien zein zen  
zure gizontzuna  
baño ederrago...!

Ezagunak ez giñan...  
Izen ederra zeunkan  
dardaraz betia;  
on ala argi ziñan...  
ala serbitzaria...  
adorez jantzia...!

Berez ta doai landuz  
dardaratsua ziñan  
gizonen aurrian;  
gaztetsu ziñelarik  
zenbat gauz ederretan  
jo zendun bizian...

Bildots errugabea  
zan zure irudia  
ontasun garbian;  
gorrotozko zirkinik  
ez zenduan onartu  
gizontasunian.

Euskeldun edestia,  
gizon min ta pozak  
ta jakituria,  
emen, maite zenduzen,  
jatorriz zirelako  
asaba-arimia.

Askatasun zorion,  
odol ta itez nai zendun:  
zer ederragorik...!  
minkor zeunkan biotza  
odola eriotzan  
kateiz loturik.

Abertzaletasunez,  
sua bezela ziñan,  
maitasun garbia;

jakituriz bakana,  
aberriaren gizon  
gailen irudia.

Nun artu zendun gatza,  
biziaren urratza,  
odolez zaintzeko...?  
Gizon eskubideak  
martin il zinduezan,  
erriak zaintzeko.

Galindez aintzatsua,  
erria jaso dozu  
semien pozetan;  
zure gar indartsua  
suagaz zabaldu da  
Euskalerrietan.

ONAINDIA'TAR  
**ALBERTO**

Zatozkit goi-argia,  
gizona ikusteko,  
bera dan bezela.  
Ez dot nai bardintzerik  
iñungo gizonekin  
zerana zarela.

Argietarantz adi,  
lurrean sustraiturik,  
zugatzik ederrena;  
euskal aritz zara,  
giartsu eta lerden,  
tantai oberena.

Euskaldun baratzean  
millaka lili dagoz arrosari adi;

Markiñeko zelaian  
lorarik bikaiñenak  
gizona dirudi.

Malaxko arkaitzpean  
arria eta ura  
dizdizetan dagoz;  
gizonen egarria  
egiaren uragaz  
ase nairik zagoz.

Egille almentsua  
errukitsua izan zan  
beren argiagaz;  
miñean jarri eutsun  
zurtasunaren deia  
erretzasunagaz.

Zenbat biotz negarti  
ainbeste gizonetan  
zendukezan adi;  
zuk izan bear zendun  
zuzentasun abotsa,  
euskaldun leiñargi.

Kristo ikusi nai dot  
zuga ta pobrietan  
negarrak txukatzen;  
eskar-miñetan dozuz  
zure itz entzuleak,  
OLASO goratzen.

Paris'ko urretxindor...  
Milloik gizonen izar...  
Zapalduen poza...  
Egin zendun on dana  
koroi bat bezela da,  
egiaren otsa.

Ona eta egia  
gizonaren itzetan  
bat biurtzen dira;  
au da pozaren garra  
bizia urratutik,  
gizonei begira.

**AIZEA**

Aizea, itz egidak.  
Burdin ala arri az  
. ire putz aldian...?  
Gorputzik ba al daukak  
asarrez oiukeran  
mendi gbizkarrean...

Zelan dardaratzeituk  
eskurik ez ba-daukak,  
ar-zulo baltzenak...?  
Zer indar dok iregan  
burdin gabe austeko  
arkaitz gogorrenak...?

Ikusten ez diran gauzak...  
ba al dituk munduan  
sinisgabietan...?  
Gabean sinistu jok  
etxe zarra jausita,  
aize dardaretan.

Ator aize garbia,  
birikien ametsa  
urdin gardenetik;  
urratu egik argia,  
biziaren indarra,  
zeru bizkarretik.

Egaz jatok aizea  
ego barik aidean  
bizia eskeintzen.  
Ez jok margorik, ez oin.  
Lagun orotan jabilk  
bizia barritzen.

PAULIN

## ZIKINAK JANGO GAITU

---



---

Gure Erriko ibaiak izen txarra dute, or-zear, mundu zabalean. Oria'ko ibaiak ote Europa'ko zikiñena... Oria, bere izenak dionez, ez zan leenago ere zuria izango. Or dezute, ordea, Urrumea ibaia, izenez ur-meedun ibaia. Nun ditu ur mee oiek? Meea izango zan izokiz eta amorrañez beteta zegoanean; baiña, gaurko egunez Santa Katalina zubiaren azpitik pasatzen diran urak lodiak dituzu, zikiñak lodituta...

Urola 'k ere ura garbia izango zuan Ekain 'eko leize-marrazkiak agertzen dutenez: antxe daukazute, zaldi artean, izoki (salmon) eder-eder bat marraztuta. Gaurko egunez, ordea, Oria baiño oriago etorri oi da tarteka.

\* \* \*

Deba 'ko angulak pamatuak ziran Bilbao 'ko azoke-tan. Angulak, lupiñak, iskirak... Zer, ez? Ibai-azpia orlegia zan, itsasoko belarren birtutez, iskiren gordeleku. Orain, berriz, azpia du ibaiak beltza, makina-oli-goaren beltza...

Iskirarik ez da urte guztian agertzen, aleka ez-bada; angulak, sartu sartzen dira; baiña, barruan gizendu bearean melartu egiten dira, flakatu, ezer-eztu...

Deba'ko kaian bale-ontziak ugari azpaldi artan eta arrantza oparoak; gerora bi mastako goleta -"pleite-roak"; ondoren, Juanito "kiskilleroa"... Gaur, ezer ez. Ez arrantzarik, ez pleiterorik, ez "kiskillerorik". Emen ez itxasotik eta ez ibaitik, emen ez da iñor bizi.

Zikiñak jan gaitu.

Negu onetan gertatu zana esango dizut. Ona: Osintxu'tik 300 estereo piñata Deba'ko ondartzaraiño etorriak. Ori, Osintxu'tik bakarrik. Kontuak atera zer zikeri etorriko zan itsaso-ertzeraiño...

Aizeari buruz, berriz, Bilbo'ko inguruak "betikoa du fama, ondo merezia". Izena eta izana, biak ditu. Baiña, Donostia bera ere, bada zer-edo-zer. "Tacita de plata" izana ba da, gaurko egunez, aizea geldixamar dagoanean, izaten du berak ere ederra ez dan zikin-txapela gaiñean. Inguruak bialtzen diona. Egun geldo oietako batean Euskalerrri'ri jira-bira bat ematen ba diozu, ikusiko dituzu zikiñezko odeiak nun-nai.

Bilbo'ko inguru guztia alde batera utzita, Durango'n, Azpeitia'n, Zumarraga'n, Beasain'en... Ez da zirikiturik libratzen.

\*,\*

Aizea eta ura.  
Biak berez garbiak. Bear-bearrezkoak.  
Gurean, biak zikiñ.

Zikiña dariola agertzen zaigu Euskalerrria. Zergaitik, ote? Badirudi dirua eta diru-irabazia besterik ez degula begien aurrean izan. Begiak, dirutik beera. Aspaldiko kanta-zaarra degu au:

Txintxin, txintxin  
diruaren otsa;  
orrek ematen dio,  
maitia,  
biotzian poxa...

Dirua berez zikiña izaki eta zikiña sortzen berez bere inguruan. Aberasten ari geran neurrian joan gera zikitzen.

Azaletik bakarrik? Azalekoa ez ote da barruko zikiñaren neurri?

Atomiko-kutsadura bakar-bakarrik palta zaigu Euskalerrri'n.

Euskalerrri nereea  
ezin zaitut maite;  
baiña, nun biziko naiz  
zugandik aparte...

Azkenik, zer gertatu baar ote du gure artean? Gorp-tz eta anima geude zikiñ. Barruko okerkeritik sortzen zaigu kanpoko zikiña. Anima uzteldu ote zaigu? Odol ixurtze, lapurretak era guztietakoak, indarkeriak, izorkeria, gezurra... gure gizartean ugari.

Beti bezela?  
Sekulako aiña.  
Geroz eta areago  
Nora goaz?

A. ARRINDA

# GANDHI TA INDIA

## ERRIEN ASKATASUNA

Gaur ludi osoan aintzat artzen dan eskubide uka-eziña da erriak euren askatasunerako edo buru-jebetza osorako dauken eskubidea.

Eskubidea ez da ukatzen, baiña askatasuna bera bai, esaterako, eskubide ori onartuta egoala egon ziran ainbeste urtetan URSS'en menpean gaur askatasuna lortu daben edo lortu-eziñik dabiltzan aberriak. Sinistu be ez gendun egiten ainbesteko nortasuna euken aberriak izan leitekezenik URSS'en edo inguruko laterrien menpean. Eta zenbat olako dagoz Europa-barruan, batzuk oiuka beste batzuk isil-isillik!

Eta olako aberrien artean daukagu gure Euskalerrri maitea, zati bat Frantze'tarren menpean eta beste zati bat España'tarrenean eta emen, gaiñera Naparroa'gandik bananduta! Noiz etorriko ete da errien eskubide ori eskuratzeko ordua, zuzentasunaren ordua?

## AGINTERRI AUNDIAK

Beti izan dira munduaren kondairan aginterrri aundi batzuk, aberriak euren menpean artzeko alegiñak egin eta elburu ori lortu dabenak. Gogoratu Sumer'tarrak, Ejipto'arrak, Persia'tarrak, Erroma'tarrak, Karlomagno ta ondorengoak, bere aginterrriaren eguzkia estaltzen ez jakon V Carlos eta ondorengoak...

Olakoen artean daukaguz, baita, oraintsuagokoak diran koloni-bideko aginterrri nagusiak eta onein artean Ingalaterra. Aginterrri kolonizatzaile onen barruan egoan India errukarria. Aztertu dagigun onen egoerea eta askatasun-bidea.

## INDIA'KO GIROA

Indiatarrak baketsu eta aberats bizi ziran euren Maharaja agintarien menpean, Ingalaterra ara joan baiño lenago, baiña eldu ziran inglesak eta beingoan menperatu eben India osoa, gogorkeri aundi barik eta Maharaja'k euren lekuetan izten ebezala; jakiña, zerga aundiak ordaintzeko beartuta. Eta geienak aberastasun aundiak eukezan lez, errez ordaintzen ebezan zerga orreik eta aberastasun aundiak ateraten ebezan aginterrriak menpekoengandik.

Biztanleen ugaritzea be aundia izan zan eta zergak be, maharaja'rentzat batzuk eta aginterrriako beste batzuk, aundiak ziran eta laster agertu ziran batez be uri aundietan eta lugiñen artean txirotasun ikaragarrian bizi ziran millakako giza-moltsuak.

Bizi-bizi agertzen dau egoera au "Alaitasunaren Uria" Liburuak. Egoera benetan gogaikarria ta azpergarria: Gosea, gaisoak, garbikuzirik eza, bizileku ganorabakoak eta abar. Elebarri au bide bitatik sartzen da egoera ori aztertzeri: Baserrian ezin bizi eta biziten urira joan zan eta zaldi-lana egiten eban gizona alde batetik eta Frantzia'tik ara joan zan mixiolaria beste batetik.

## "GAUR GABEAN ASKATASUNA"

Egoera larri ori, batez be Kalkuta lako uri aundietan, ikusi ondoren, egokia da "Gaur gabeen askatasuna" izenburua daroan liburua irakurtea.

Liburu onek kondaira bi alkartzen dauz, eta egokiro alkartu be, Gandhi'ren bizitza ta jokabidea alde batetik eta Inditi'ren askatasunaren urratsak bestetik.

## GANDHI

Gandhi'ren jokabidea benetan arrigarria da, ametsezkoa dirudi, baiña berak jokabide ori osoan beteten eban. Arlo askotan kristiñauen bidearen antza be ba-dauko.

Gandhi'k gizona gizon lez artzen eban eta ezelako norkeririk ez dau onartzen, ez erlejiñoagaitik, ez endeagaitik eta ez seksuagaitik. Eta iru arlo orretan barditasuna benetan utopia zan Indian, an egozan erlejiño-giroan bramanak eta ikutu-eziñak, or bitartean zatika aundian askotariko maillak egozala, sekzu-arloan andren egoerea latza zan, erraza-aldetik induak eta musulmanak alkarren gorroto bizian agertzen ziran. Benetan utopi edo ames utsa zirudian giro orretan Gandhi'ren irakatsiak.

Barditasunaren elburu ori lortzeko, geroago ta biziago billatzen zan Ingalaterra'gandik askatasuna eskuratzeko, Gandhi'k bide bakar lez bakezko ekintzak eta bere gose-aldiak egiten ebezan. Eta asko lortzen eban. Sarritan agintariak indarrez erriak baketu ezin ebezanean, Gandhi'ri deitzen eutsoen eta berak urietan gose-aldia asten eban eta ori errian zabaltzen zanean, bakeak egiten ziran, beraganako errukiagaitik.

Gandhi'k India bat nai eban, induak eta musulmanak bardintasunez barruan zirala, baiña ori ezelan ezin onartu izaten eben induak, lurralde aretako erritar jator bakarrak zirala uste ebelako.

Ez eban lortu Gandhi'k aberri bakar ori egitea, Pakistan'ek artu ebezan zati bi, 80 milloi musulman beragaz zirala eta Indiak bestea 300 milloi indu zirala.

Gandhi'k, bere guraria ori izan ez arren, burua makurtu bear izan eban eta induen arteko gogorkerizale batzuk, berez laster ilteko zorian egoala, tirokatu eta il egin eben.

## ABERTZALETASUNA

Gandhi'k bere elburu nagusia lortu eban: India Ingalaterra'ren menpetik askatzea. Baiña zer esan bere jokabideari ta eritziai buruz? Ez ete ziran induak abertzale jatorrak eta musulmanak, etorriak? Ez ete daukaguz guk geure artean antzeko arazoak?

Gandhi abertzalea izan zala esan geinke, baiña bere jokabideak gure artera sartzeko aztertu-bearrekoak litzakez.

OLAZAR'tar Martin'ek

# NUAMMAR EL GADDAFI'REN IRAULTZA

Libia 3.400.000 biztanle ditu eta 1.759.540 kilometro laukiak. Petroleo askodun erria eta batzuetan beste biztanle bakoitzaren irabazia 10.000 dolarrekoa da urteero (miloi terdi pezeta). Beraz, erri aberatsa eta orregeitik-edo, Tripoli deritzan urri nagosian, edozeiniek du "Peugeot" edo "Toyota" bat.

Petroleoren barakada aundi aldiari, nekazaritzan ipiñi dituzte beuren begiak. Esate baterako, Zirenaika deritzan aldean, gari-soro izugarrien artean, eundaka ektarea sagarrez bete dituzte. Bigarren urte onetan asita daude Golden eta Starking sagar ederrak jasotzen.

1980'garren urtean petroliotik 24.000 milioi dolar atera zituzten; orain, berriz, 8.000'ra jeitxita daude eta orixe izan da nekazaritzari begiratzeko arrazoibidea.

Toki oietan 20 egazkin bereizi dituzte ongariak eta momorroak iltzeko darabiltzen gaiak zabaltzeko.

Tripoli inguruan beste orrenbeste gertatzen ari da. Baserriak jasotzen dituzte: etxea, traktore bat, bi bei eta irurogei ardi eskeintzen dizkiote utsean baserritar izan nai aduanari. Oiekin batera 25'tetik 50'era ektaraluz. Fin jokatu ezkeroz 20.000 dolar ateratzen dituzte; geienak, ordea, 12.500'etan gelditzen dira. Baiña, lanik egiten ez duanari irugarren urtean guztiak kentzen dizkiote baserritar berria sartzeko.

\* \* \*

Orain 16 urte El Gaddafi koronelak Libia'ren aginpidea bere gain artu zuanean, erri osoa arez betetako eremu bat besterik ez zan; gaur, berriz, zerao aberastatuta daude petroleoari esker... naiz-eta gauza asko alperrik galdu eskuartean.

Jendeak esker onez ikusten du El Gaddafi'ren garaiako aldaketa izugarri au.

\* \* \*

Ona aldaketa batzuek:

Medikuntza arloan. besteetan bezala, aldaketea aundia izan da, 1970'garren urtean Libia osoan 40 (berrogei) sendagille zeuden. Gaur 2000'tik gora dira. Ori ez

da guztia: 1984'an eraikitako Ikastola Nagusitik 200 (berreun) sendagille aterako dira urte oro. Ikastola ori Bengkazi'ko urian dago eta badute erri orretan atzerapenak jotako umeentzat berebiziko lekua, aurrerapenez betea. Sendagille oietatik, laurden bat, emakumeek osatzen dute. Berau ere, arabeen arteko errietan, ez da gero aurrerapen makala...

\* \* \*

Beste arlo batean, ikaragarritzko ekintza daramate aurreruntz, Libia osoa unez asetzeko, barru-barrutik kosta-alderaiño: eremutik Tripoli'ra. Lan orretarako tubo izugarriak, zazpi metro terdi luzean eta lau metro diametroan, egiten ari dira 1.200 surkoreano langilleak. Tubo oiek egiteko lantegiak, ertzetako osarririk gabe, bi kilometro terdi ditu luze eta kilometro bat zabalean. Asmakizuna amerikarrena da, zuzendaritza australiako batek darama eta lana egiteko Korea egoaldeko jende langillea.

Baiña, lan oietan, guztietan, libiatar teknikoak daude murgilduta lanean gogo aundiz eta itxaropen aundiagoarekin. Petroleoaren barakada onek bultzatzen ditu lana bizkor egiten, berandu baiño len.

Lenengo zatia egiña daukate eta 3.300 milioi dolar bertan xautuak. Bigarrena oraintxe asteko. Bi tuberiak alkarrekin joango dira eta lau milioi kubiko ur eramango dituzte Tripoli'raiño eta Libian zabalduz. Makiña bat soroeri eman lezaioke bizia ainbeste urekin.

Bertan lanean ari dan Korea-egoaldeko injeniero batek esaten zuenez, beste orrelako lanik ez da munduan osotu Txina'ko arri-esi aundia ez ba'da. Uraxe lanik aundiena munduan. Ondorengo, au izango omen da.

\* \* \*

## Luiburu Orlegia

Maotzetun'ek Liburu Gorria zuen bezala, Muammar

## GIZARTEA

EI Gaddafi koronel lendakariak ere badu bere Liburu Orlegia, Rousseau-ren Kontratu Soziala gogora-arazten duena. Bertan ipintzen ditu bere asmakizunaren oiñarriak eta, berak dionez, auxe da Irugarren Teoria Orokorra. Beste biak zerak dira, Rusoena bat eta bestea Amerikarrena.

Bere iritzirako alderdi politikoak ez dute balio: bakoitzak bere askatasuna eta erantzunkizuna ez ditu beskeen eskuetan utzi bear, alderdi politikoen eskuetan, alegia.

Baiña, bere barru-barruko asmoa auxe da: Amerikarrak zanpatu eta bere burua Sozialista Arabe guztien lendakari biurtu.

1969'garrenean, El Gaddafi aginpidera eldu zanean, petrolio-konpani guztien jabe egin zan, iraultza berri bat eratuz eta "Jamahiriya"-Aroa sortuz.

Jamahiriya erri xeearen aroa da, masaren aroa: Kongreso errikoi bat sortu da Libia'n. Auzo bakoitzean, lantegi bakoitzean, ofizina bakoitzean, ikastola bakoitzean sortzen dira elkarteak eta elkarte oietatik Legebiltzarrera doazen diputaduak eta auek osatzen dute Erriaren Kongreso Orokorra, Libia'ko Estaduaeren zuzendari.

Biltzar errikoi bakoitzak (lantegietan, nekazaritzan, Ikastola Nagusian...) eratzen du bizi-modua, lana eta alojera. Lan gutxiago egin nai ba' dute ere, ori beuren esku dago; baiña, orduan jornaia ere txikiagoa izango da eta beste biltzarrek kontu artuko diete ia zergaitik lan gutxiago egiten duten... Aizkenean, zer? Itzak ederrak.

\* \* \*

El Gaddafi jaunak, ordea, iraultza ori mundu zabalera eraman nai du eta beste Laterrietan gazteek iraultza egin nai ba' dute, oiek txalogarriak dituzu eta laguntza zor zaie.

Lantegi eta nekazaritza elkargo aundiak, guztiak Jamahiriya'renak dira. Alaz ere, dendak eta lantegiak, bakoitzak berea, sortzea aske da; baiñan iñor menpean artzerik ez dago, sozio bezala ez ba'da.

Eroskiak auzo guztietan daude, Laterriarenak.

Etxeak, berriz, bakoitzarena bear du izan eta geienak Agintaritzak eraikiak. Iñori norberaren etxea alojeran eman ezin: zeuk erabili edo saldu; beste biderik ez dezu izanen...

Liburu Orlegian ez da erlijiorik aitatzen; baiña, alkoola debekaturik dago, arabeen artean legea dan beza-la. Zinemarik ez da. Automobillak ugari kaleetan eta tabernatxo bat noiz-beinka; baita ogi-dendak ere. Beste animaziorik ez dezu arkituko uri aundietako ibilbideetan zear.

Liburu Orlegia dotriña-liburua da eta Kostituzioaren ordezeko.

iru zati ditu. Lenengoa: demokraziaren akatsak eta korapilloak erriaren aginpideak askatzen ditu eta ezeztatu. Bigarrena. Ekonomiaren korapilloen askatzaillea sozialismoa da. Irugarrena: Irugarren Teori Orokorra oiñarri soziala du.

Xistema berri onetan demokrazia komite errikoietan, elkarte errikoietan eta langilleen elkarteetan eraikitzen da. Guztiok osatzen dute eta alkartzen dira Erriaren Kongreso Orokorrean.

Irakutsi eta ezitzeko munduan dauden xistema guztiak apurtu bear dira, kultur-iraultza orokor baten bidez, indarrez ezarri dizkioten mentalitate, ideia eta gustu guztietatik gizona askatzeko.

Alojeran oiñarritzen diran lantegi-mota guztiak desegin eta beuroen orde zozio-arteko elkarteak sortu, arazo gizartekoak konpondu aal izateko...

Orra or Irugarren Teoria Orokorra. Muammar EI Gaddafi'ren iraultza berria, mundu osoari eskaiña eta, al ba'da indarrez ezarria.

ANES





# INDARKERIAREN ITURRIAK (LENGO LELOA BARRIRO)

Ikastolatik al zatozte?  
Ez. Gaur ez degu ikastolarik.  
Zer, ba...?  
San Jos de Calasanz dalako. Bera bait da eskoletako zaindaria.  
Baita, baita.  
Ara, zine bat ikusi nai izan degu Donostia'n arratsalde-pasa.  
Eta, zer dago gaur ikusteko.  
Zine batean "Carlos el Terrorista ematen dute...  
Ederra kontua!  
Bestean. berriz "Adios Tio Tom": beltzeeri, morrontzan indarrez beartu zituztenean, egin zieten astakeri guztiak bizi-bizi jartzen omen dituzte...  
Ori ere bai?  
Beste batera joan gera eta an, berriz, "I... de Icaro": Ameriketako lendakaria nola il zuten, alegia.  
Arraioa!  
Laugarreanean zera arkitu degu: "Les llamaban y les llaman sinvergilenzas": ez omen diote ñori pakean uzten.  
Bosgarreanean, zer...?  
Ikusirratira joan gera eta an "La pistola sumergida" ikusi degu.  
Oiek danak gaurkoak dira?  
Bai. gaurkoak.  
Biar suerte ohea izango al dezute...!  
Biarko "Forajidos de Leyenda" omen dago programatuta.  
Ba, ez da zerrenda makala...!  
Ori bakarrik ez: baita beste emakume polit bat ere: "Gloria pistola bat eskuan duela...

\* \* \*

Azaroaren 27. Osteguna.  
Begira gaur bertan zenbat, indarkeri erakusten duten eskola, irikita dauden gure errian, Donostia'n, bakarrik. Zoaz errietako zineak ikustera eta ikuspegi oberik ez dezu arkituko.

Zer pentsa?  
Indarkeriaren errua Ikastoleeri ezarri nai dizkie lepotik zintzilik.  
Erreza da aker bat billatzea beste guztien erruak ordaintzeko.  
Erruen lerroak zabaldua daude nun-nai. Makiña bat aleku badago indarkeria ikasi aal izateko. Errez asko.  
Zer azi erein, uzta alakoa. Indarkeriaren aziek nunnaitik zabaltzen dira eskuak-bete...

Laister datoz Gabonak eta Erregenak. Ikusiko degu zer jostailu eskeintzen zaizkien gure umetxoeri beuren jolasketarako... Ez da pistolarik faltako. Izantgo da eskopetarik eta guda-tresnarik...

Egunero gertatzen zaizkugun gertakizunak dira eta oien aurrean ez degu azta betazalik ere mogitzen, gauzak orrela bear baluteke bezala.

Era orretara jokatuta, zer ondoren sortuko da gure artean indarkeria ez ba'da...?  
Terrorismoa indarkeri orren ertz bat besterik ez da.  
Nun erakusten da indarkaria?

Arrinda'tar ANES  
16-XII-1980

## AMARI

Amaren itz ederra...  
Zer esan nai deutzazu  
seme maiteari...  
Zabaldu biotz ori,  
odolak entzun daion  
amatasunari.

Itxasoa iduri,  
errukiaz beterik,  
amaren biotzak;  
ezagutzen dan itzik  
maitetsuentzat zaukaz  
biguntasun utsak.

Semearen jaiotzan  
erdibi egin ziñan  
aurtxoa sortuaz;  
nekeak eta miñak  
poz bihurturik, gero,  
aurraren zeruaz.

Umearen negarrak  
zer sorterazten deutsu  
biotz sakoniam...?  
Odol bera minduta  
zelan ez dau asmauko  
amak min semian...?

Irriparreka dago  
udabarri-giroan  
umea pozetan;  
biotz bi bat ein dira  
aragi ta odolez  
maitasun itzetan.

Aurtxoa lotan dago  
seaskatxo barrian  
zorion artian:  
amesetan dabilgaz  
ama eta semea  
zorion utsian.

PAULIN

## ABERTZALEAK, KARLISTAK ETA SOZIALISTAK

### GAURKO EGOERAN

Gaurko egunez kiarlistak, abertzaleak eta sozialistak alkarren inguruan, moltso batean, dijoazela dirudi, euskal lurretan.

Alkar-inguratze ori berez sortu al da?

Berez ez da ezer sortzen.

Ori ere ez.

Arbolaren frutuak sustraietatik.

Gaur-eguneko egoeraren sustraiak gerra-aurrean, gerra-tean eta gerra-ondorenean daude.

### Gerra-aurrean

Geiago ere ba ziran; baiña, iru talde auk jarriko ditugu begien aurrean: karlistak, abertzaleak eta sozialistak.

### Abertzaleak

Auk Euzko-Alderdi-Jeltzalekoak ziran (Partido Nacionalista Vasco). "Abertzale" izenarekin P.N.V. ezagutzen genduan. Alderdikoak eta Abertzaleak bat ziran. "Alderdia"

zan P.N.V., besterik gabe. Eta Abertzale besterik gabe, P.N.V. zan.

Aldertitik (P.N.V.) sortu zan Accibn Vasca.

JEL (Jainkoa Eta Lege Zaarra) zan Alderdiaren (P.N.V.) izen-burua. JEL'eri J kendu zioten Accion Vasca'koak (Jainkoa).

Abertzaleen (P.N.V.) ikurriña gaur eguneko ikurriñ ori zan. Sabinok Bizkaiarako asmatu zuena. Partiduak bere ezaugarri bezela beti erabilli zuena. Euskal mendietan Euzko-Gudariak (abertzaleak) erabillia, bere inmo eta guzti: "Euzko Gudariak gera..."

Euzkadi, ikurriña, inmoa, gudariak, guzti oiek, P.N.V.'tik sortu ziran.

Ba ziran beste gudariak ere; baiña, beste auk "milizia-noak" ziran. "Gudari" euzko-gudari-abertzalea zan.

X \*\*\*

### Karlistak

Auk (Dios, Patria, Fueros, Rey) aizken urteetan "Fue-ros" izena galdua zuten: Dios, Patria, Rey gelditu zitzairen.

Patria ere Cadiz'erañño zabaltzen zuten. Ikurriña gorria eta oria zuten. Erregea etzan euskalduna. Eztabaida zeukaten ortan euren artean.

## IPUIN-SARIKETA (BILBAO'KO UDALAREN BABESPEAN)

EUSKERAZALEAK ALKARTEA'k, urte guztietan lez aurten be, ipuin-sariketa iragarten dau, oiñarri-arauak oneik dirala:

Ipuñak euskeraz eta erriak erabilten dauan euskalkia erabilliaz idatziak izan bearko dabe eta idazkerea, EUSKERAZAINTZA'k argitaratua eta ZER aldizkarian erabilten dana.

Ipuñak asmatu-rikoak edo errian batuak izango dira, ez idatzita dagozanak edo itzulpenak.

Luzeera iru orrialdetik lau orrialdera, idazkiñez idatzita eta bitarte bi dirala. Saria irabazten dabenak ZER'en argitaratuko dira. Saririk irabazten ez dabenak be bai ipuñaren barrenean idazleak baimena emoten dauanean.

Azillaren azkenerako EUSKERAZALEAK ALKARTEA'ren etxean (Bilbao'ko Colon de Larreategi, 14, 2<sup>a</sup> eskoia) egon bear dabe. Abenduaren azkenerako emongo da maikoen erabagia eta ZER'en agertuko da, Urte-rrillean, baita DEIA Egunkarian be al bait lasterren.

Sariak lau izango dira:

1<sup>a</sup> 40.000 pezeta

2<sup>a</sup> 30.000 pezeta

3<sup>a</sup> 20.000 pezeta

4<sup>a</sup> 10.000 pezeta

Ipuñak izen-ordeagaz bialdu eta karta-azal txiki baten barruan izen-ordea ta izena.

EUSKERAZALEAK

Ez ziran abertzaleak "patriotak" baizik. Madrid'era begira zeuden:

"Cueste lo que cueste / se ha de conseguir  
que reine Alfonso Carlos / en las Cortes de Madrid..."

Partidu bezela erdera zaleak ziran. naiz-eta karlista asko euskaltzale izan.

Partidu bezela:

Abertzaletasunik. ez.  
Euskerarik, ez.  
Ikurriñarik, ez.  
Euzkadirik, ez.

## Sozialistak

Madrid'era begira zeuden. Eibartik at, ia geienak, erdalduak ziran. Ikurriña, gorria zuten. Partidu bezela, erdalduak egiña, naiz eta Eibar inguruan euskeraz egiñ.

Abertzaletasunik, ez;  
euskerarik, ez.  
eusko-ikurriñarik, ez.  
Euzkadirik. ez.

Prieto eta Madrid'eri bagira. Onela abesten zioten Prietori Madrid'eko Gobernuaren Ministro egin zutenean:

Indalezio. Indalezio,  
Indalezio Prieto,  
sasoi dezu, sasoi dezu  
Euzkadi askatzeko.

Baiña, Indalezio ez zuan Euzkadirik askatu. Gerratean Bilbo esta-ta-larri zegoan garaian, Madrid'en Ministro de la Guerra zegoan Prieto jauna. Atakatu zezala eskatu omen zion Prietori Euzkadiko Gobernuak. Baiña, Bilbo erori artean ez zan Madrid'etik atakerik izan.

Gero bai.

Bilbo urdiñek artuta gero.

Orduan, bai. Orduan Brunete'ko atake ikaragarria izan zan. Gudaroste urdiña, an joan bear izan zuan Brunete'ko zuloa millaka ta millaka sodadu-gorputzez estaltzera.

Zergaitik ez zuten atake ori jo Madrid'en? "Ministro-dela-Guerra" k?

Emen, maltzurkeriz edo, esaten zuten Prieto asturianoa zala, naiz-eta Bilbo'ko sozialisten diputadu bezela agertu. Eta garai artan oraindik Asturias urdiñen eskuetan erori gabe zegoan...

## Gerratean

Karlistak alde batetik eta abertzale-sozialistak bestetik gertatu ziran.

Karlistak abertzaleen eta sozialisten aurka.

Karlistak falanjekoekin naasturik, Naparroatik Gipuzkoara sartu ziranean, abertzaleen billa asi ziran batez ere, P.N.V.'koak garbitu nairik. Abertzaleen aurka zetozten, anaiak anaien kontra.

Napartarren itsutasunak sartu-eragin zitun abertzaleak eurena ez zan burruka batean...

Karlistak bultzatuta alkartu ziran P.N.V.'ko abertzaleak Madrid'era begira zeuden sozialistekin. Alkarrekin burrukan egin zuten frente guztietan. Alclarrekin izan zapalduak ere...

Abertzaleak (P.N.V.) eta sozialistak kartzeletan eta zapalduak edo erritik kanpora atzerrian.

Zapalduta diranak eta atzerrian dabiltzanak alkarrengana errezago jotzen dute. Alkarren anparoa billa oi dute.

Dana dala eta dena den, arrezkero alkarrengandik gerturago bizi izan dira beti.

Alkarrekin dabillena, alkar kutsa oi du: abertzaleak sozialistatu dira eta sozialistak abertzaletu.

Eta, karlistak?

Karlistari esker irabazi zuten burruka urdiñek. Gero, ordea, agintaritza ez zan karlisten eskuetara etorri.

Gelditu ziran menpeko.

Menpekotasun oneri esker edo. izan da karlisten aldaketak: abertzale eta sozialisten ingurura etorri dira. Auengana gerturatu dira.

Izen-burutik galduta zeuzkaten "Fueros" arkitu dituzte berriro. Euskera eta ikurriña aukeratu dituzte. Baita Euzkadi ere.

Orra abertzaletasunaren eltzean (leenago, lenengo orduan. Euzko-Alderdi-Jeltzalea (Partido Nacionalista Vasco) bakar-bakarrik zegoan eltzean) orra gaur-egun sozialistak eta karlistak, biak alkarrekin. barruan.

Badakigu sozialista-rnodu guztiak ez daudela eltze orren barruan, Madrid'en burua dutelako; baiña, abertzale euskaldun askok sozialista-arnasa artzen du gaur-egun.

## Gauzak bere tokian


Gaur-eguneko naaspilla onetan ez da erreza gauzak bere tokian garbi uztea. Abertzaletasuna, ikurriña, Euzkadi eta Euskera zaletasuna Sabino Arana-Goiri'ri dagokio eta berak asmatutako Euzko-Alderdi-Jeltzaleari (P.N.V.).

Euskal-kontzientzia esnatu-arazi ziguna Arana-goiri'tar Sabiñ izan da. Eta bere Partidua.

Bestak, beste.

Arrinda'tar ANES  
(9-XII-1976)

# IZKUNTZA BAT BERA DAUKAGU



*Auxe dozu zure betiko  
Kutxa. Bere berbea bete  
eta zure bear-izanak  
ulertzen dauzan Kutxa.  
Etorkizunera zabalik dagoan  
Erakundea, etenbako  
gora-gogoagaz  
bere erriko jenteari  
laguntza-gai osoak  
eskintzen dautsozana.  
Beti dago zugandik ur  
izkuntza bakar baten  
alkar ulertu daikegun.*

**BBK**  
**Bilbao Bizkaia Kutxa**